

BALOREZKO PROPOSAMENA

Covid 19 dela eta gaur egunean lehengo arazoak areagotu egin dira. Lehengo beharrak, gabeziak... orain hauek handiagoak dira.

Lehen egoera normalean geundenean bazeuden pertsonak, familiak, laguntza behar zutenak, arropa beharrean zeudenak, elikagaiak... guretzat oso eskuragarriak daudenak, arazorik gabe lortzen ditugunak beste askoentzako ez dira hain eskuragarriak. Gu normaltzat jotzen ditugun gauza horiek jende askoentzako zailak dira lortzeko. Lehen paroxedo tasa handia bazen gaur egun oraindik ere handiagoa da Covid-19 dela eta, egoera ekonomikoak golpe ikaragarria jasan du, pertsona asko langabezian gelditu dira, horrek dakarren ondorioekin.

Etxe askotara ez dira iristen funtsezko diren elikagaiak, arropak, txikienezko jostailuak, kontutan hartuta urteko ze garaian gauden.... Horregatik proposamen bat dugu pertsona horiei gure laguntza eskaini eta iritsi ahal izateko. Baina proposamen hau bideratzeko eta gauzatzeko zure laguntza behar dugu.

Gu izango gara bitartekariak. Balinbaduzue arropa erabiltzen ez duzuna, txikia geratu zaizuna edo zure seme-alaben jostailuak kaja baten ahazturik... ahal duzun neurrian eta heinean lagundu dezakezu.

Covid 19ak sortutako beldurra eta kezka bira emango diogu, eta behar diren neurri guztiak hartuko ditugu zure laguntza behar den tokira iritsi dadin. Segurtasun neurriak egongo dira, distantzia egokia, maskarillak, gel hidroalkoholkoa... Neurri guztiak beteko ditugu eta zuek emandako gauza guztiak iritsiko zaie behar duten pertsona horiei.

Nahi baduzue gurekin harremanetan jarri dezakezue web orriaren bidez eta bertan aurkituko duzue non utzi edo donatu nahi dituzuen gauza guztiak.

Edozein zalantza, kezka edo iradokikizuna gustura eta kontutan hartuko eta aztertuko dugu. Denon esku dago egoera zail honi buelta emateko enpatia pixka bat izatea, horregatik, elkartzat da guretzat arazoa konpondu ahal izateko balorea, hortik gure elkarrekin sortzeko ideia. Jasotzen dugun laguntza horrekin beste batzuei euren bizitzaren zati gogor horri goxotasuna eman ahal izatea.

Gure proposamenaren balorea kuantitatiboa zein kualitatiboa da zeren geroz eta gauza gehiago bildu gehiago izango dugu banatzeko, jendeen artean eta nahi duenak diru aportazioak ere egin nahi baditu ongi etorriak izango dira.

Balore kualitatiboari dagokionez, ziurtatzen gara beharretan dauden familiei zuek emandako janaria, jostailuak, arropak... ahalik eta egoera hoberean iristea eta beraien bizi kalitatea hobetzea.

